



### 3. PAISAIAREN BALORAZIOA

## 3. PAISAIAREN BALORAZIOA

### 3.1 PAISAIA KALITATEAREN ZEHAZTAPENA

Ikerketa-arloa oso zabala ez den espazio urbano bati dagokio; bi urertzetatik bertara sar daitezke oinezko-eta bidegorri-bidexka bidez; topografia laua du, eta zubi eta pasaguneak ditu komunikatzeko. Salbuespen gisa, goiko muturra (industria-gunea) eta beheko muturra (portukoa), eta bertako enpresek erabiltzen dituzten bideak ditu. Ezaugarri horrek zehazten du maiztasun handiko eguneroko erabilera, eta horrek ikusmen hauskortasun handia dakar, baina ez dago esparruaren araberrako desberdintasun garrantzitsurik eta, beraz, badirudi interikusmenaren azterketak ere ezin duela ekarri informazio interesgarririk ekintza-plan bat egingo balitz.

Horregatik, paisaia-kalitateari dagokionez paisaiaren balorazioa zehazteko, lan-taldeak ebaluatzen du honako irizpide hauen arabera:

- Kontserbaziorako interesa

Planeko lurralde-eremu bakar bat ere ez dago espazio babestuen sare barruan (Natura 2000 Sarea, Parke Naturalak, Biotopo Babestuak), eta ez dute flora eta fauna espezie babestuen kudeaketa-planen edo sektoreko beste araudien babesik. Hala ere, azpimarratzeko modukoa da Oiartzun ibaiaren beheko zatiak konexio ekologikorako duen funtzioa, itsas ingurunearen eta Natura 2000 Sarearen (Aiako Harria) arteko bektore gisa. Gainera, sektore bat sartzan da EAEko ibai eta erreken ordenamenduaren Lurraldeko Plan Sektorialaren “Ongi kontserbatutako landaretza duten ibaiertzen” kategorian; hor dagoen haltzadia Europa mailan interesa duen lehentasunezko habitata da, Habitat Direktibaren (CE/43/92) eta Natur eta Bioaniztasun Ondarean legearen arabera (9/2007 legea). Esanguratsua gertatzen da, nahiz eta hidrologia-plangintzaren balorazio handieneko zati barruan ez egon, egun hainbat ekintza egitea izokin arrunta espeziea (*Salmo salar*) sustatzeko, Habitat Direktibaren II. eranskinean sartuta baitago. Tokiko zuhaitz berezitat jotzen diren ale zehatzei babesa eskaintzen zaie, Plan Orokorreko Katalogoan sartuta daudelarik, eta beste batzuk katalogozako proposatu dira ikerketa espezifikoko batean. Udala ere lanean ari da, beste erakunde batzuekin elkarlanean, ibai-habitata kontserbatzeko, bai ibaiertzetako landaretza, bai arrain-faunarentzako ibaiaren ibilbideko iragazkortasuna.

Elementu arkitektonikoei dagokionez, garai batean jasandako eraldaketek existitu diren eraikin gehienak desagertzea ekarri du (ontziolak, fabrikak, instalazio hidraulikoak). Ibaiaren ardatzean zehar, dena den, elementu esanguratsu batzuk geratzen dira. Jarduera ekonomikoa izan zuten azpiegiturak ziren Udaleko Hiltegi Zaharra edo Fanderiako errota; biak ala biak azpimarragarriak. Elementu entzutetsurik ez egon arren, badira hainbat euskal industria-ondareko elementu garrantzitsuenen katalogoan sartuta (Udaleko Hiltegi Zaharra eta portuko Rezola Zementuen siloak); beste batzuk Eusko Jaurlaritzak proposatu ditu babesteko (Merka Oiartzun eraikina), eta beste batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkitektura Zerbitzuko gidan jasota daude, 1850-1960 garaiko arkitekturaren adibide (Udaleko Hiltegi Zaharra eta Papelera Española-ren “Etxebizitza bonifikagarriak”). Udal plangintzak hainbat elementu sartu ditu katalogoan, besteak beste, Fanderiako errota eta kanala, Papresako zubia, Udaleko Hiltegi Zaharra eta Eusko Treneko zubiak. Lehen-mailako elementuak ez izan arren, historiaren lekuko dira, alor horretako adibide gutxi

geratzen baitira, eta horrexegatik kontserbatu eta birgaitu behar dira; gainera, ibai-paisaiako elementu garrantzitsuak dira.

- Ordezkarritasuna eta berezitasuna

Ingurune honen faktore esanguratsuenak itsasadar eta ibai izaera dira; horrek nabarmen eragiten du ingurunearen osagaietan eta ibaia erabat garatutako hiri-gune batean sartze horretan. Ezaugarri horiei berezitasun handia ematen dion beste bat gehitu behar zaie: hein batean balioak kontserbatu eta berreskuratu dituzten ur-biziko xafla bat eta ibai-habitat bat. Erreteriak, "Manchester txikiak", industria handia izan zuen Oiarzun ibaiaren ondoan, garai guztietan, eta bat-bateko hiri-garapena XX. mendearen bigarren zatian; horrek eraldaketa handia eragin zion paisaiari eta horren kalitateari. Gizarte-mugimendu eta erakundeek ekimenek lehengoratu ahal izan dute, hein batean, jasandako degradazioa; momentu honetan, ibaia nahikoa garbi ikusten da; ingurunearen erabilera sozial eta aurrerapenerako nahi handia dago, eta hori ere oso esanguratsua da. Aipatu behar da, dena den, bilakaera bertsua islatzen duten beste adibide batzuk ere badirela, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izan gabe.

- Osotasuna

Ikertutako alorraren ezaugarri garrantzitsuenetakoa zatikatzea da, eta hori da paisaiaren Ekintza Plan hau egiteko arrazoietakoa bat. Egindako hiri-garapena, eta ondorioz egungo egoera, egin izan diren ekintza partzialen baturaren eta ibai-korridore bat izatea baino beste irizpide batzuk aintzat hartzearen fruitua da. Ildo horretatik, ikus daiteke gune batzuetan ibai-ardatza atzeko fatxadatzat jo dela, baina egungo beste batzuetan, balio handiagoa eta osatuagoa ematen zaio. Zatikaketa erabilera-aniztasunean ere antzematen da; erdigunetik kanpo baina baita erdigunean bertan dauden industria-guneekin, edo hiri-gunetik oso hurbil dauden portu-guneekin. Etengabe eraldatzen ari den multzo bat da, eta parke, espazio libre, pasealeku, eraikuntzen tipologia eta ibaiaren paisaian islatzen da. Horrexegatik, paisaia-unitateak taxutzean, osotasun-irizpideak garrantzi handia izan du, paisaia-ezaugarriei dagokionez barne kohesio handiena izan duten esparruak identifikatzen saiatu baitira.

- Paisaia oso baten funtzioa

Multzoan izan duen bilakaera, kokapena eta garrantziaren arabera, hiru esparru azpimarra daitezke: alde batetik, Ondartxo-Iztietan-Altzate, area degradatuak dira baina baita potentzialtasun handikoak ere, eta horiek lehengoratzeak aldaketa handia ekar diezaioke ibai-ingurunearen multzoari eta baita udalerriri ere. Erreteriariko historian eta bizitza sozialean izan duen garrantziarengatik, ibaia lotune izan duten Zumardi eta inguruko plazak funtsezko beste eremua dira. Hirugarren sektore garrantzitsua bi ibaiertzetan kokatutako parkeek osatzen dutena da; ibaia askotan haien lurralde-muga izan den arren, osotasun-faktore ere bilakatu izan da.

- Eskenatokiaren kalitatea

Ez dira identifikatu ezaugarriengatik arte-kalitate handia edo turismoarentzako erakargarri izan daitezkeen eskenatokiak. Paisaia irisgarri, erabilgarri eta egunerokoa da; herritarrek eman dioten balioak konnotazio emozionalak ditu estetikoak baino. Dena den, Aiako Harriko parke naturaleko bihotzeraino heltzen den Oiarzun ibaiaren multzoko eta Arditurriko bide berdeko zati bat izatean tokiko balio hori baina haratago doa.

Ur-xaflak, sortzen dituen distirengatik gardentasun, dinamismo eta aniztasun handia izanik (gertuko ingurunean aniztasunaren ondorioz), askotan behatu eta islatu da tokiko arte-adierazpenetan (pintura, argazkilaritza), eta garrantzitsutzat jo daiteke.

## 3.2 HERRIAK EMANDAKO BALIOA

### 3.2.1 Bilera eta tailerrek egindako ekarpenak

Elkarrizketa, bilera eta tailerretan jasotako ekarpenen laburpen bat jasotzen da, jarraian, paisaia-unitate bakoitzarentzat. Hainbat eragilek bidalitako dokumentuetako ekarpenak ere islatzen dira.

#### A) PAISAIA UNITATEA “BEHEKO ZATIA”

##### Paisaia-interesa duten elementuak

- Iztietako pasealekua, tamaina, oinezkoen erabilera, eta egoteko eta paseatzeko ezaugarriengatik.
  - Ondartzoko kirol-gunea, erabilera eta instalazioengatik (skate- eta kirol-pista).
  - Udaleko Hiltegi Zaharraren eraikina erabilera- eta arkitektura-balioarengatik
- (Hibaika arraun-elkarteak erabiltzen dituen instalazioak).
  - Altzaten berreskuratzen ari diren interes naturaleko habitatak.
  - Kaleko artea, Altzateko harresiko graffitiak.

##### Paisaia-gatazkak

- Ondartxo pasealeku amaierako gunea oso degradatua eta iluna; han dago kokatuta ponpatze-estazioa (EBAR), eta usain txarra botatzen du. Trenbide atzeko zubi-ingurua ere oso degradatua.
- Kaputxinoetako tuneleranzko magala oso degradatua, landaretza urria eta hondakin pilaketa, eta horrek zaildu egiten du landaretza ateratzea eta lorategi-lan bidezko tratamendua.
- Ibaiertzaren eta Kaputxinoetako zubiaren arteko oinezkoen bidea moztuta, aurreikusitako zatia ez baita egin.
- Hondatutako eraikinak eta ingurua degradatuta Hiltegi Zaharraren atzealdean.
- Udaleko Hiltegi Zaharraren eraikina kontserbazio-egoera kaskarrean.
- Alzaten fauna inbaditzailea (koipua).
- Alzate, hondakin-pilaketako guneak dituen orubea.
- Eskuineko urertza degradatuta, pasealeku estua eta harresi baten mugarekin.
- Iztietako pasealekuan zuhaitzi eskasa.
- Lorategi-guneak zaintzeko zailtasunak zakur-pixen eraginez.
- Nabigatzeko zailtasunak pasaguneak baxuegiak direlako (dagoneko igota daude) eta sakonera nahikoa ez ibaiaren ezkerrean material asko pilatzen delako.
- Iztietako auzoan aparkaleku gutxi.
- Arriskua etorkizunean Iztietan trafikoa ugaritzeko eta oinezkoen pasealekua mozteko, planifikatutako zubi berria eraikitzen baldin bada.
- Ura kutsatuta badiatik ur kutsatuak sartzen direlako eta ezkerreko urertzetik estoldetatik isurtzen delako.

##### Beharrak eta proposamenak

- EBAREk sortutako isuriak eta usain txarrak konpondu.
- Badiatik kutsatutako ura iristea ekidin eta saneamendua osatu.
- Alzateko gune osoa padura gisa birgaitu.
- Alzaten kai bat egokitu “herriaren itsas espiritua” berreskuratuzeko.
- Pasagunea igo nabigagarritasuna hobetzeko eta ur goraldien aurrean ubidearen gaitasuna areagotzeko.
- Hiltegi Zaharreko eraikinaren fatxada berritu.
- Hiltegiko instalazioak hobetu eta zabaldu udalerrian uretako jarduerak sustatzeko;

- erabilera herritarrei zabaldu eta erreka zozatzeko (barrualdea berritu, leihoak, berogailuak, aldagelak eta solairuarte baterako aukera).
- Hiltegiaren atzealdea aparkalekuetarako egokitu, altura bakarrean edo, aurreikusita zegoen bezala, hainbat altueratan.
- Ondartxo eta Kaputxinoen tunelaren artean, oinezkoentzako arrapala eraiki. Oinezkoen bidea egokitzea trenbideko zubitik Pasaiarantz doan bideraino; horretarako Portuko lurra erabiliko dira.
- Ondartxon ostalaritza-gunea.
- Ondartxoko magala gune berde gisa egokitu.
- Errenteriak izan dituen ontziolak gogora ekarri.
- Gogora ekarri itsasontziak eraikitzeke Errenteriako basoen erabilera tradizionala.
- Altzateko orubean behin behineko aparkalekuentzako gune bat egokitu, Iztieta doan pasagunearen ondoan, eta Niessengo plaza libreen aukera aprobetxatu.
- Iztieta pasealekuan, zuhaitzi eta landaretza kantitate eta kalitatea areagotu (gogoan ditugu garai batean zeudenak; beste leku batera eraman ziren, jende guztia ez baitzen horien egokitasunari buruzko iritzi berekoa).
- Iztieta pasealekuan jarduerak sustatzea, Udalak berak antolatutako ekitaldietan nahiz leku honetarako egokiak diren beste batzuetan. Auzoak ere jarduerak proposatzea.
- Kaleko artea sustatzea deialdien bidez.
- Iztieta pasealekuko fatxadei irudi bizi eta berezia eman, kolorez jantzi.
- Ibaiak eskaintzen dituen aukerak hobeto aprobetxatu itsasontzientzat.

## B) PAISAIA UNITATEA “ERDIKO ZATIA”

### Paisaia-interesa duten elementuak

- Panier zaharreko ibaiko fatxada, plaza eta indigaztainondoa (bizirik dagoen azken alea).
- Lekuona Arte Eszenikoen Zentroaren etorkizuneko instalazioa.
- Etxeberrietako itzaldun oinezkoentzako kaleak.
- Pasealekutik erreka jaisteko eskailerak.
- Etxeberrieta ertzeko pasealekua.
- Zuhaitz- (ezkiak azpimarragarri) eta lorategi- guneak. Olibet zubiaren ondoan 40 metro inguruko gurbitz-hesia eta Papresako zatiko eskuineko urertzean kokatutako landaresia.

### Paisaia-gatazka

- Gernika plazaren urbanizazioaren baldintzak; ia ez da erabiltzen, ez du itzal ez landaretzarik eta erreka-erikiko beste maila batean dago.
- Usain txarra eragiten duten aldizkako isuriak ibaiaren eskuineko ertzean.
- Askatasunaren Martirien kalean (Etxeberrieta) zaratak eragindako eragozpenak, bereziki, Lezoko errotondatik datozen ibilgailu pisutsuek, industria-jarduerak, trenak eta saihezbideak eraginda.
- Eskuineko urertzean pasealeku oso estua, Papresako eraikitzeek eraginda zenbait puntutan; kontu hori planteamenduan jaso zen, baina ez da konpondu.

### Beharrak eta proposamenak

- Etxeberrietan soinu- eta trafiko-inpaktua gutxitzeko neurriak; kamioiak ibiltzeko dagoeneko dagoen debekua ere aplikatu behar da.
- Panier plazako indigaztainondoa babestu eta garrantzitsutzat jo.
- Ibaira noizean behin botatako isuriak eta usain txarrak saihestu.

- Berreskuratu ibaiarekin kontaktua eta pertsonak paseatzen eta uretatik gertu dantzan daudela galdutako irudia.
- Zumardiaren iturri apaingarria berreskuratu eta diseinua aldatu.
- “Damasaren” eskultura berreskuratu, egun zabortege batean baitago lurperatuta.
- Zubiak landare eta loreekin apaindu.
- Ibaira jaisteko eskaileren sarrera ireki, itxita baitago, txalupak lehorreratzeko erabil dadin. Parnier ingurunean arrapala.
- Panier plaza, eraikin gabeko erabilera libreko gunea.
- Gernika plaza hobetu, itzal-guneak jarri, eskenatokia kendu eta beste bat jarri kaleko ikuskizunak egiteko, bestelako erabileratarako (proiektzioak) baliogarria litzatekeen harresi bat gehituz, eta egoera hobean jarri ibaiko pasealekuarekiko maila desberdintasuna.
- Lehendakari Agirre plazan, estalitako gunea bat jarri, eskenatoki bat eta publikoarentzako lekua edukitzeko moduan, eta ordeztu, urtean zehar jartzen den karpargatik.
- Zumardia oinezkoentzat bihurtu, Niesseneko errotondatik Panier zubiraino, eta Papresako zubiraino zabal daiteke, enpresarekin hango lurren zati bat erabiltzea adostu ostean. Proposamen zahar bat ere berreskura daiteke: trenbidearen ondoan errepide bat egitea erdiguneko trafikoa desbideratzeko, besteak beste.
- Adif-ek erabiltzen ez dituen guneean, aparkalekuak egitea, ibai ondoko gunek libratzeko.
- Uhateak edo beste sistemaren bat jartzea, bideragarria baldin bada, ur-xaflaren mailari eusteko eta Zumardiaren zati bat itsasontzien kai bilaka dadin.
- Artistek duten ikuspegia erreka eta inguruekiko; erakustaldia eta argitalpena egin daiteke.
- Fabrikak kokatzen diren lekuetako toponimia berreskuratu. Industria-ibilbide bat egin; fabrika historikoen kokalekuen berri eman.
- Ondareari balioa eman, historia berreskuratu.
- Irudi historikoak erreproduzitu; fatxadak erabil daitezke eta proiektatu ere egin daitezke.
- Ibaitek materialak kendu uholdeak saihesteko eta makinekin sartzeko gunek egokitzeko.

#### A) PAISAIA UNITATEA “GOIKO ZATIA”

##### Paisaia-interesa duten elementuak

- Fanderiako arrapala/presa berria.
- Jarraian dauden Gabierrotako (“ur-jauzia”) presa txikiak.
- Fanderiako kanala errotako goiko uretako zatian, eskaintzen duen freskotasun eta ur-hotsarengatik.
- Ibaiertzeko pasealekua, ibaia ikusten dela, oinezko eta txirrinduan dabilzanentzat; laua da, entrenamendurako gunea gisa erabiltzen da, kirolestarako.
- Larzabal parkeak piknik- eta kirol-gunea du.
- Larzabalen ibaira jaisteko arrapala.
- Fanderia parkean belardi zainduak eta zuhaitz berezi eta balio estetikodunak.
- Erreka eta ibaiertzak, uraren kalitatearengatik, xaflaren eta hango distirarengatik, ertzeko landaretza eta errekarriko hondartzengatik.
- Espazio lasaia erreka ondoan, Fanderiako meandroan, banku eta ingurune basatiarekin. Urertzeko ikuspegi naturala.
- Gabierrotako pasealekua, zabala eta eguzkiarekiko orientazio ona, astigarrez betetako zuhaiztia, balio handia ematen zaio itzalagatik.
- Nafarroako Zuhaiztiak egoteko leku aproposa, duen itzalagatik.
- Gabierrota eta Fanderiako parkeetan adineko pertsonen ariketak egiteko elementuak.
- Ondare-elementuak: Arditurriko meatze-treneko zubiaren aztarnak, Gabierrotako errotako gurgila, Fanderiako errota eta kanala, Gabierrotako desagertutako errotaren erreferentzia historikoak.

- Fauna basatia, uretako hegaztiak eta izokin

arrunta, agian erruteko leku eta guzti.

#### Paisaia-gatazkak

- Eraitsitako ezpondak, hondakin pilaketa, obra-hondakinak uretan eta ibaiertza itxita, horrek ibiltzea eragozten du Aranguren parean.
- Pilatutako hondakinak ertzetan eta errekan.
- Schorndorf parkea izenez ezagutzen den lorategi botanikoa kontserbazio egoera txarrean.
- Degradazioa autopistako errepide azpian eta argizatze eskasa.
- Autopistak eragindako soinu inpaktua.
- Pertzepzio negatiboa ibaiertzaren egoerarena Fanderiako meandroan; urez estal daitekeen gunea izanik, ez dago garbi

parkea edo ibai-ingurua den; hiri-altzarien egoera txarrak erakusten du hori.

- Zelaiak zikinak, eta ezin dira erabili zakurkakaz beteta daudelako.
- Gatazka oinezko eta txirrindularien erabilerarekiko ibaiertzeko zenbait zatitan.
- Flora eta fauna inbaditzaileak (koipua).
- Ezin da ibaira sartu, gune batzuetan ezik.
- Fanderia errota azpiko uretan kanala egoera kaskarrean.
- Gabierrotako pasealekuan harri-lubetak oso agerian.
- Lintziringo ubidetik datorren kutsadura.

#### Beharrak eta proposamenak

- Oinezkoen pasealekuak osatu egin gabe dauden lekuetan (Aranguren eta Larzabal) eta bide-zorua eta zuloak hobetu beharrezkoa den lekuetan.
- Larzabalgo oinezko eta txirrindularien konexioa planteatu etxebizitzaren eta ibaiaren artean; autoak kendu eta erabilera publikorako gune bat eratu, pribilegiatua baita eguzkiak ematen duelako eta soinu gutxi dagoelako. Galduko lirakeen aparkalekuak gertuko beste leku batzuetan jar daitezke eta baita aparkaleku gehiago jarri ere.
- Ibaiko hondartza bat jarri Larzabalgo zubiaren eta Gabierrotakoaren artean; konbinatu baso-guneak eta bainurako egokiak direnak (bidegorriaren eta ibaiaren artean); belar-gune eguzkitsu eta etzateko aproposa, atsedenaldirako edo irakurtzeko, edo eguzkia hartzeko bidegorri eta errepidearen artean.
- Lotura-pasagunea Fanderia eta Nafarroako parkearen artean, material arinekin.
- Balizadun eta markatutako ibilbideak kirol-trebakuntzarako ibai guztian zehar, eta horri gehitu beste gune batzuk malkartsuak, bide-zoru gabeak eta ariketa librerako guneak ekipamenduekin.
- Ibaiaren bidea eta ertza berreskuratu Arangurenen.
- Schonrdorf (Villa María Luisa) parkea berritu.

- Larzabal parkean elementuak konpondu (ibaira jaisteko arrapala, haurren jolasak birkokatu eta piknik-gunea garbitu).
- Ibaian eta ertzetan pilatutako hondakinak, aldizka, jaso.
- Fanderiako meandroan errekarra jaitea erraztu.
- Errota eta horren ingurunea garrantzitsutzat jo.
- Errotako goiko uretan, konpondu kanalera sartzeko itxiturak hondatuta dauden lekuetan.
- Kanaleko beheko zatian landaretza ezegokia kendu, ikuspegi hobea egon dadin, eta beharrezko den lekuan segurtasunerako itxitura bat jarri.
- Kanaleko uraren maila igotzeko aukera aztertu.
- Burdinsarea jarri kanaleko uren hartunean, arrainik pasa ez dadin.
- Landaretza naturala berreskuratu; beste espezie batzuen edertasun handiko aleak kontserbatu. Progresiboki aldatu zuhaitzak.
- Interes teknikoak eta estetikoak konbinatu, pertsonaren ekintzen eraginak ahalik eta gehien txikitzen saiatzeko. Artifiziala disimulatu, paisaia naturalizatu.
- Landaretza erabili Gabierrotako harri-lubetak ezkutatzeko, eta bioingeniaritzako lanekin ordeztu.
- Landaretza inbaditzailea kendu.

- Interpretazio-taulak jarri ibaian (fauna, landaretza) Topoko edo autopistako bideen azpian.
- Zakurrentzako guneak sortu.
- Belardiak egoteko eta erabiltzeko moduan jarri, zakur-kakarik gabe.
- Errekan bainua hartzeko lekuak prestatu.
- Zerbitzu publiko gehiago jarri (komunak).
- Auzolana sustatu.

### **3.2.2 Argazki-irudien ekarpenak**

Eskatu bezala, irudiek ikuspegi pertsonala islatzen dute, leku onetsienei dagokienez, oroitzapenak eta bizipenak, eta alderantziz ere, degradazioaren erruz gure arreta bereganatzen duten alderdiak. Jasotako irudien azterketa eta sailkapena egin da, paisaia-baliabideekin duten erlazio kontuan izanda.

Lehen ondorio gisa esan daiteke, orokorrean, ikuspegi positiboak nagusi direla; balio estetiko handia eta erreka bizi bat islatzen duten elementuak azpimarratu dira. Nabarmena da uraren xafla; paisaia-unitateei dagokienez, esanguratsua da pasaia-unitatearen beheko zatiko ekarpen ugaria; degradazio-maila handi samarra eduki arren, gune baliotsutzat jo da. Jarraian, irudietan gehien irudikatu diren elementuen zerrenda bat daukagu:

- Ur-xafla
- Ibaiertzeko pasealeku eta parkeak
- Basoko landaretza
- Irudi zaharrak
- Ur-bazter naturalak
- Ibai nabigagarria
- Elementu arkitektonikoak



### 3.3 PAISAIAREN BALIOA

Diagnostikoaren, paisaiaren kalitatearen eta herritarren balorazioaren arabera, paisaiaren baloraziari buruzko ondorioak atera dira. 1 eta 5 artekoa da balorazio-tartea, balio oso baxua, baxua, erdi-mailakoa, altua eta oso altua izan baitaiteke. Balorazioa koadro bikoitzean egiten da; paisaia-kalitatea eta balio soziala baloratzen da Paisaia Unitate eta Paisaia Baliabide bakoitzean.

PAISAIA UNITATEA	+PAISAIA KALITATEA	+ BALIO SOZIALA	=PAISAIA BALIOA
PU Goiko zatia	4	5	9
PU Erdiko zatia	3	3	6
PU Beheko zatia	3	2	5

PAISAIA BALIABIDEAK	+PAISAIA KALITATEA	+ BALIO SOZIALA	=PAISAIA BALIOA
Ur-bazter naturalak	5	4	9
Zuhaitz bereziak	2	3	5
Basoko landaretza	4	3	7
Zumardia	4	3	7
Ibai-inguruko hiri-guneko beste plaza batzuk	2	3	5
Fanderiako parkea	4	4	8
Eskuineko urertzeko parkeak	4	3	7
Fanderiako errota eta sistema hidraulikoa	4	4	8
Udaleko Hiltegi Zaharra	4	2	6
Beste elementu arkitektoniko batzuk	4	2	6
Ur-xafla	5	5	10
Fatxada urbano bereziak	3	2	5
Ibaiertzeko pasealekuak	3	5	8
Aisialdi aktiboko ekipamenduak	2	5	7
Ibairako sarbideak	5	5	10

Paisaia-unitateei dagokienez, balorazio onena PU Goiko zatiak lortu du; koherentea da hango baliabideak, kalitatea eta erabilera kontuan izanda. Antzeko balioa eskuratu dute beste bi unitateek, baina joera desberdina, bereziki, PU Beheko zatian, degradazio-maila handiago izan arren, potentzialtasun handia baitu.

Paisaia-baliabideei dagokienez, azpimarragarria da ibaiaren habitatari eta horren baldintza naturalei emandako balioa, ur-xafla, erreka sarrera eta ur-bazter naturalak baitira baliabide baloratuenak. Fanderiako ingurua, errota barne, eta erreka-ertzeko pasealekuek bigarren blokea osatzen dute, balorazioa altuarekin. Hirugarren mailan daude baliabide heterogeneoak, zazpi puntuko balorazioarekin. Azken blokean ditugu beste ondare-elementu eta erabilera publikoko gune ez hain garrantzitsuak.

